NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

IXTRIPUAK. - LEHENEKO ARTAK ETA SENDABIDEAK

Itz horrekin minartze edo akzidenteak deitzen ditugu; oraí, ifiolz ere baino geiago minartze bada, dela autoen kasketako batean, etxeerretze batean edo ito behar arriskutan. Halakoetan iru gauza dira premiatsuenak: ez tarrapatan aritzea, eta ez bururik galtzea; ongi jakin zer ezten egin behar, eta azkenik, prezisoena egiten jakin behar, sendakin edo sendatoki batera eramateko kalterik egin gabe.

Eroriko txar batean, zango edo besoa autsi denean, batere ikusketan edo probaketan aritu gabe, makil edo ohol bat zangoaren kontra edo besoaren luzara ezar lokarri batekin, tinkatu gabe; ezur autsia mugi ez dadin, sendakinarengana aillegatu bitartean.

Bizkarezurra autsi dela susmoa badugu, gorputza inarrosi gabe, poliki taula edo kamilla batean ezar erroz beiti, sendatokira eramateko.

Itotzer dagoenean bat, atsartze artifiziala delakoa egin behar zaio, itourren dena lurrean luze etzan eta, soinekoen loturak laxatuz; besoak gora altxatuz eta bular gaina zapatu, mantsi eta aldi luze batean, gelditu gabe, bere baitarik atsartzen asten duen artio.

Sutan dagoen presuna bat ikustean, beinere ez ibil ureske edo ur botaka; maindire, manta edo kapa handi bat lasterka artu eta horrekin ongi inguratu eritua; gero ez ibil ifiolaz ere erredurak edo bixikak garbitu edo lertu naiez, sendatokira edo sendakin baten gana eraman baizik. Eta aurpegi edo eskutako erredura ttipiak, gantza, olio edo edozein ugentu eztigarri batekin gantzutu; berehala eginez, ezdira anpuluak ateratzen.

Elektrikadura ixtripua, erdaraz electrocución, aipatzen du HERRIA astekarian Zaindari delako idazle batek gisa hontan.

Eman dezagun norbait elektrikatzen dela gure aitzinean; zer eginen dugu? Dohakabea izan ditake urrunago aurtikia edo lurrerat eroria; bestenaz elektrikak bere gana biltzen du, eskua aztaparka ariari lotua daukela eta ezin handik atera. Lehena, elektrika indarretik kolpatua berexi, bainan norberak arrapatua izan gabe haatik. Hortako, ar dezala egur edo makil idor bat edo soka edo oialezko zerbait, hala nola kautxuzko eskularru bat.

Elektrika pasatzera uzten ezduen idor zerbait; kasu beraz urari edo tresna bustieri, hauetan elektrika kurritzen baita.

Elektrika hil edo itzali giltza bilatuz; batzuetan, indarraren buruzagieri deitu, ken dezaten indarra goragotik.

Kolpatua elektrikatik berexi bezain laster, behatza sar zintzurreraino, bidearen garbitzeko, zer gerta ere; ortzorraze faltsu edo beste zerbait balu ere aho zolan trebes gelditua. Ahoa indarrean etsirik badauka, ez denborarik gal ideki beharrez. Eta sendakina etorri artean, bizia behar zaio eriari salbatu, atsa artze artifizialaren bidez, goraxago aipatu dugun etserzizioen bidez, bai eta ahotik ahorako atsa emanez. Luzatzen bada ere, segitu amor eman gabe; hau da elektrikatu baten sendabide premiatsuena, kolpatua atsa artzen asten den mementoraino.

Edatera etzaio eskeini behar, berak ezagutzak ongi artu artean. Egiteko horiek gauza ttipiak dira berenez, bainan aski zenbait aldiz bizitza baten salbatzeko... eta ixtripu bati ez ondorio makurra goen emateko.

A. APAT-ETXEBARNE

AXULAR SARIA

GIZON POBREA

Bazen gizon bat bakarrik bizi zena eta zen pobria etzuen "ja" ere yateko eta etzuen fundamentuik lanetako, etzen alimentatzen. Negua allagatu zen eta etzen frutik eta yausere kanpuan, udan izeten zen eta alimentatzen zen bañan oraí ez zagon frutoik. Fite hilko zen goseak bañan egunbatez sortu zen Belengo estalpian aurtxoa eta han bizi ziren Ama Birjiñe eta San José bere aurtxoakin.

Gizon harek yakin zuelaik nola sortu zen aurtxoa pensatu zuen gatea adoratzera, bañan etzuen deusere erregalatzeko. Gan zen kanpora pasagietzera norbait arrapatiko alzuenian eskatzeko zerbait ere. Atera zen eta arrapatu zuen gizon bat eta geldituta hasi ziren solasean.

Eta gizonak erran zion:

—Non bizi zara?

—Bide hortaik gan eta lenbiziko etxean.

—Zer aitzen zara?

—Deusere, egur pixkat berotzeko eiten. Badakizu Belengo estalpian sortu dela aurtxoa?

—Ez ez nakien. Gan biarko dugu ikustera.

—Bai.

Eta gizon harek erran zuen:

—Zerbait gan biarko diogu.

—Nik eztut yausere mateko.

Bertziak erran zion:

Nik egur pixke bat badut, bien artian gain diogu eta bien izenean erregalatiko diogu.

Gan zioten eta pozez bete ziren San Jose, Ama Birjiñe eta Niño Jesús.

MARIA RITA BERGARA, AZPILIKUETA 13 urte.

MARI KONTUA

Bein batean baziren nidoan makiek eta han pastu zen gizon bat eta erran zioten makiek «manos arriba ven con nosotros". Eta gizon hure izitu zen eta gan zen borda batera, han erran zioten:

—Zer kartzen tuk gizon hoyek?

—Eztiet ez nik kartzen neri hoiek kartzen naute.

Eta makiek gan ziren etxe batera eta ebatsi zuten hango gauza guziak. Gero torri ziren bertze etxe batera eta hango gizonak ez ziren etxean, bakarrik andrea eta aur txiki bat eta erran zioten andre hari ez balin bazuen ur txiki hura hilen ziotela. Gero torri zen gizon hura bordara eta erran zuen:

—Torri da hunet norbait?

—Ez da torri ifior ere.

Eta gizon harek ez zakien erdaraz eta erran zuen ziotela "hermanos arriba ven contigo".

Eta gero gan zen soldaduetara eta orduen ez zakien ez eskuaraz eta ez erdaraz.

JOSEFINA LASTIRI
ERRATZU. 13 urte

GURE AMA LURRA

BETELU TA URA OSASUNGARRIA

Apezetxe zarra Betelu'n (Aida argazkia).

Elosta mendi egalaren bazter batean ta Araxes ibai ondoan dago erri au. Errege bide nagusia bertatik dijoa; Iruñaruntz, ikaragarrizko menditartetan sartzen da. Len etzijoan zulo ortatik. Galtzara zarra, Gurutze Santu baselizatik mendira zijoan, zuzenean aldapa gora Irulegi'ra ta an San Donato baselizaren nodoan, igarotzen zan. Baseliza au bakardade aundian dago guar; len ez, bide ondoan zigoanta. Baseliza onek ba dauka bere Izkutapena odrea. Bidean zebiltzen zirenentzat, gaxotegi bat izaten zan emen. Eliza barrenean idazki batek ala dio: «San Donato'ko ermitakoak, Birgina sortzez garbiari eta pelegrinoari». Aldare gaineko arkua erromaniko gotiko bitarteko garaikoa da. Eliza barrenak eta inguruak merezi luke garbitasun bat.

Erri onek arte aldetik ba dauzka bizpairu gauza interesgarriak. Bat parrokiko sarrera da. Amairu garren gizaldikoa degu. Aldo bakoitzean bost abetxo ditu ta auen gainean erromaniko iduri batzuek. Baita garai berdiñeko Andra Mari bat eserita bere aurra belauna gainean dula, iduri liraña degu. Keru azpiko ur ontziak erromaniko antza du.

Parrokiko eliza ederra da, San Pedro'ren eizna darama. Aldare nagusiko erretaula amazazpi garren gizaldikoa da ta bataio pontea amasei garrengoa. Eskubian ba dago aldare berri bat, bertako seme batek egiña Jose Igaralegi kalonjeak. Berari esker egin ziran ere erriko eskolak. Gizaldi ontako gizona degu.

Ikusten ditugu errian etxe zabala ta sendoak. Bat degu, ibai gaineko aldean, arri ta egurrekin egina, amabost garren gizaldikoa, ezin dana ikusi gabe utzi; bere izena Apezetxezarra. Euskalerriko etxegintza nolakoa zan ikusteko, gogoan euki bearra da: etxe ederra, sendoa ta alaia. Bestoa, Indiano jauregia, erri erdian daukagu, arri landuakin egina, sarrera berriz atea burnizko iltzekin ta barrenean badu abeekin egindako igarotegi zabala. Etxe au, ondatu xamarra dago, merezi luke zerbait egitea. Erriko seme ospetsuen lanak dire etxe auek.

Izan ditu erri onek seme aundiak. Bat batez ere, Peru'ko gobernadorea izana, Pedro Lezaeta.

Len egiten zan peria, frontoiko enparantzan, illearen azkeneko estiralean. Azkena orain dala amar urte egin zuten.

Irurogei ta amaika sendi bizi dira Betelu'n ta irureun biztanle ditu. Olategi berriak ekartze arren erria ez da geldirik egon. «Wiske española» etorri zaie. Lurrak eman dizkiote ta kontribuziorik gabe utzi urte askotarako. Gipuzkoar batek ere ba du etxe bat biguna egiteko. Gainera Dama Iturriko ura, bear bezela botilletan sartu ondorean saltzen dute. Oso ona omen da giltzurdiñetarako. Estarriko gaitzentzat ba dago beste iturri bat; iturri santua deitzen diotena. Onen urak ibaira zuzenean dijoaz. Lanteko auetan 20 langille dabiltz.

Betelu erria, 1694 garren urte arte Araiz baillarakin batuta zegoen. Geroztik dauka azkatasuna ta bere erriko etxea.

Aspaldiko garaietan Naparroko erregeak asko lagundu zioten, batez ere Juan Labrit'ek 1507 garren urtean.

Ezin degu aztu erri ontako seme berexia Antonio Juanagorri fbilkari trebea. Aralarko bazterrak ondo ezagutzen zituan. Arrigarrizko gizona zan. Astero bizpairu aldiz San Migel'ko bidea egiten zuan eta amar duro ematen ba zizkioten Malloetako malkorran gordetzen zituan.

Zoritzarrez erri ontan euskal goiroa atzera dijoa. Pincipe de Viana'k, 1958 garren urtean euskeraz mintzatzen ziran aurrak saritu zituan. Orduan 25 ba zeuden euskeraz zekotenak eta beste 20 zerbait. Umeen Deia liburuan, amaika errialdetan agertzen dira emengo aurren idazlanak.

Gerra ezkeroz erdera sartu zan elizan. Aitzakia axalekoa zan; erdaldunak ezotztelako alegina. Goroztik la orain arte dana erderaz egin dute. Kristau ikasbidearekin berdin gertatu da eskoletan. Orain erretora euskerazko erantzunak mezen batean euskeraz sartu naian dabil. Orrenbeste urte ondorean utzita eukita, ez omen da ain errax astea. Igandetako zortzitako mezan itzaldia euskeraz egiten du. Intza'ko aurrak Beteluko eskolara detozelako kristau ikasbidean nai ta naiez zerbait egin bear.

1949 garren urtean azkoneko aldiz bersolariak ekarri zituztela, pelota txapelketa bukaeran.

Pako Urrizalki tixtulariarekin egin nuan bein topo kalean. Ondo zotorkidan Antzara jokuaren gora berak galdetzeko. Txistua jotzen nola ikasi zuan esan zidan. Gaztetxoak ziranean, Intza'ko erretorak kotxe zar batean eramaten omen zituan, Luis Alduzin Aldaz'ko erretorerangana, txistua ikastera. Amar urtekin asi ziran ikasten bera ta Bitor Yeregi. Gerra aurretik auskal giro jatorra omen zegon Betelu'n; txistua, dantzak eta erromeria. Bi txistulari gazteak jotzen omen zuten igandero enenparantzan eta inguruatako errietatik makiña jendo biltzen zala. Pako'k amalau urtekin, Iruña'n 1935 garren urtean Ezpata Dantza jo omen zuan bakarrik. «Aiek txaloak, bai edrerak. Makiña duro zillar erori omen ziran bera zan lekura», ala dio berak.

Gauza auetako, gerra ondorean etzegon girorik. Gaizki ikusia zegoen. Aurten berriz, bere bi alabekin jo du goiz eresia, erriko festetan. Gure txitulari enek erriko dantza zarra guztiak ezagutzen ditu, batez ere antzara jokue ta karrika dantza. Bakarrik mutiko koxkorra zala, ikusi omen du, Betelu'n, antzara jokua jolasten. Gero 1946 garren urte inguruan asi ziran berriz lanean dantza au egiteko, bainan bear zuten mutilla il egin zitzaien. Karrika dantza berriz, askotan egin dute, baita 50 bikoteakin atera ere. Dantza au, Iñauteri irugarrenean egtien zuten. Antzara jokua berriz Iñauteri bigarrenean egiten zan. Karrika dantza azken aldiz erain 12 urte egin dala. Oiturari utzi diote. Antzara jokua, Baralbarren jo omen zuan, 1949 garren urtean.

Orain amar urte, asin zan berriro gaztetxoei Ezpata dantza erakasten. Bederatzi mutil zetozkion. Gero irutan gelditu ziran eta orrekin bere asmoak txintxilik gaur arte.

Patxi'k bere egun zoragarriena orain dala iru urte izan du Muskaria'n. Tolosa'ko txistulariekin joan zan ostiko jolasa ikustera ta aurretik ango Erri Etxeko kide bateri agertu zioten joateko asmoa ta an bezela ez omen dituzte iñun artu. Lagunak zai; sendietan, kalean ta alkatearen aurrean txistua joaz. Zeukan pozagatik, sugurrarekin ere txistua jotzen omen zuan.

Len, aspaldi, erri onek ba zuan txistularia guztin ena ta espetsua, Antonio Artetxa bere izena. Aita Olazaranek oneri artu zizkion emengo doñu zarra asko. Azkue'k ere Antzara jokuaren doñua Betelu'n jaso zuan.

Naparroko Diputazioak, euskerari laguntzen dion bezela egin bear luke txistuarekin. Txistua ta dantzak erakasten dutenei eman bear lieke sariak. Orrela berpiztuko lirake erri askotako oiturak.

LATXAGA



(Betelu (Aida argazkia).

ON JORGE DE OTEIZA, ORIO ERRIKO SEME OSPETSU, ESKULTORE IZEN AUNDIKUA DANARI OROIGARRITZAT, ESKER UGARIAK EMANAZ

Eskerrak zuri, OTEIZA jauna
nere biotz biotzetik
egiñ dirazun omena gatik.
Ez nago, ez, ni azturik.

¿Marezi al nun ainbeste artzia?
¿Ez alda izana geiegi?
Ikar'aundi bat arturik nago
ikustian omen ori.

Nere aldetik beiñ eta berriz
goratuaz, maite zaitut,
eta barruan zureganako
zerbait ona sentitzen dut.

Nere sendian "bozetu" orrek
poskaria zabaldu du.
Leku berezi merezia dun
batian ipiñi dugu.

¡Zeñena izango ta bertsolari
XENPELAR euskaldunena;
Euskal Erriko olerkaritzan
izana dan onentxuena!

¿zeiñ naiz ni, bada onen aurrian
aiñ goitikan zuk jartzeko.
Arra zapalkor, txingurria bat
besterik ez naizelako.

Ordu ta orduan bera'i begira
mututurik egoten naiz.
Negarra tantok nere begiak
ixuritzen dituzte maiz.

Bertsok moldatzen asten naizenian
auxe aurrian dutela,
oneri argia eskatzen diot,
zerutik lagun nazala.

Eguneroko nere otoitza
zerurontz juaten diranak,
zuretzat ere badira, JORGE.
Artu, on-ona zeranak.

JOAQUIN ALDAVE 1972

«TXOMIN AGIRRE» NOBELA SARIA 1972 URTEA

Sariketaren oinharriak (Euskaltzaindiak, 1972ko Martxoaren 28an Donostian egindako batzarrean erabakiak):

1. Euskaraz Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1968) erabakizuenaren araberan (Ikusi: **Euskera**, XIII, 1968koa, 250 orrialdean).
2. Egileak bere kabuz egina izan behar du eta ez da ontzat hartzen ez itzulpenik eta ez besteetatik egindako antolamenik.
3. Lanaren neurria, 150 orri gutxienez, alde batetik makinak idatziak, letro-une bat zuri utzirik, folio edo DIN A-4 paper neurrian.
4. Sari bakarra, Bizkaiko Aurrezki Kutxak jarritako 25.000 pezetakoa, zatitu ezina.
5. Saria gabe gelditu diteke epai-mahainekoei hala iduritzen bazaie.
6. Lanak argitara gabeak izan behar dira, hiru kopia bialdu behar dira Euskalzaindiaren etxera (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6. Bilbao-5, 1972ko Uztailaren 26rako. Lema batekin izenpetua, eta lemaren giltza estaldua, lanarekin batera bidali.
7. Epai-mahaina Euskaltzaindiak izendatuko du.
8. Saria, Urriaren 31an, Aurrezki Kutxen egunean emango da, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren etxean egingo den jaialdian.
9. Arau hauek interpretatzean sortzen diren arazo guzia Euskalzaindiak izendatzen duen epai-mahainak erabakiko ditu. Eta erabakiaren kontra inora joaterik ez dago.

GEREZIETATIK, BURUILAREN 11 AN. - 1960

Ez naiz guti harritu atzo Pragatik Irailaren 6 eko zure eskutitza Gerezietako chokorat ethorri zaitalarik. Eskualzaletan nork ez daki segurki Tauer-tar Norberta jaun jakintsun eta langilearen berri, bainan ez nuen den gutienekorik asmatzen nibezalako langilechka baten entsein ttikieri behatzen ahal ziniotela! Ikusazu beraz zer atsegina ukhan dutan Milesker eta miletan milesker, jauna, zure hitz maitagarriak.

Hain chuchen, atzo joan behar izan dut Gerezietako hegal arrunenerat. Bada, mendiari kontra badugu eraikia Ama Birjinaren egoitzatto bat. Garaldako Amari ithoitz kartsu bat egin diot balhauniko —Garalda mendiaren izena da— zure chedetarat: zure chede guzi-guzietarat.

Chahartua naiz eta nekhez izan dezaket lurrean zure ezagutzaren egiteko zorion eta ohorerik: Garaldako Amak elgarretara gaitzala zeruan...

Eta berritz ere, uste-gabeko adichkide jauna, milesker milesker guzietan kartsuena. Hemendik goiti atsegin handienarekin har netzazke zure berriak ausartegia ez banaiz!

Jean Elissalde apheza
"Zerbitzari"

(Karta hau Praga'ko Erakasle, euskaldun berri eta euskaltzale on dan Norbert Tauer jaunak bidaldu digu euskal orri hontan argitara dezagun. Esker aunitz Tauer jaun maitea biotzez).

EUSKALERRIAN BARNA

Bertsolari-Besta Elizondon

Elizondoko Mariano Izeta adiskide maiteak esan didanez datorren Maiatzan Elizondoko "Antxitone"ko trinketean Bertsolari festa eder bat izanen da.

Bertsolari-Besta hau **Nafarroko Diputazioaren "Euskeraren Aldeko Sailla"** ren laguntza eta zuzendaritzarekin egiten da eta besta honen antolatzailea lehen esandako Mariano Izeta jauna da, bera Euskararen Aldeko Sailla honen bokala bait da Nafarrako lurralde horren izenean.

Hauek dira ari izan behar diran bertsolariak: LASARTE, MATTIN, LAZKANO eta AGIRRE.

Eguna ez dakit zuzen oraindik baño ia ia zihur da Maiatzaren ogeitabat garrenean ospatuko dela. Ordua arratsaldeko lau t'erdietan. Eldu den euskal horri hontan berean berri xeheagoak emango ditut.

Besta hontan biltzen diren diruak Elizondoko IKASTOLARAKO izanen dira. Bertsozaleak badakite nun daukate bertsuak entzuteko egun eta toki egokiak.

Nafarroko IKASTOLAK eta Diputazioa

Gero eta IKASTOLA gehiago ari dira irikitzen gure Nafarroan, eta baita ere gero eta aurpegi gozo eta alaigo gure nafar jandea ari zaie jartzen zorionez.

Gure Diputazioak urteoro diru-laguntza ematen die baita ere bere babespe, geriza, eta estalpea.

Orain berriki **Diputazioak**, bere **"Principe de Viana" delako Elkargoaren" Euskeraren aldeko Sailla"** ren bitartez, Nafarroko IKASTOLA guzei dirulaguntza eder bana eman die urte honen partez.

Entzun dudanez laguntza hauek berretuak, anditiuak, izan dira.

Hemendik gure Diputazioari gure goresmenak.

Lizarra eta Altsasu beren IKASTOLEEN alde

Amabost egun badituela Lizarra zaharrak (Estella erderaz bere frontoian bertako IKASTOLAren alde Pelota-Besta antolatu zuela. Datorren larunbatan Altsasuko herria ere bere IKASTOLAren alde beste ainbesteko besta egitekotan dago.

Lizarran esito aundian ospatu zan dena eta diru moltzo ederra bildu zan IKASTOLArentzat. Uste dugu ere Altsasuko herrian bere IKASTOLAK diruketa polita jasoko duela.

Eskuzko Pelotaririk onenetako bat izana den Eibarreko Mikel Gallastegi famatua Altsasuko Pelota-bestan, beste pelotari ezaguneen artean ariko da. Alsasuarrak joan zaiztezte denak frontoira zure IKASTOLA lagundu beharrez!!

Euskal Teatroa Nafarroan

Lazkanoko herriko "Oargi" teatro taldeak **"Nafarroko Diputazioaren "Principe de Viana" Elkargoaren babesa eta laguntzarekin euskeraz** antolatutako "APAIZ, LANGILLE ETA GIZON" izeneko obra Nafarroako zenbait euskal harritan ezagunerazten así da.

Ioan berri den Apirilaren 8 eta 9'etan Lesaka eta Bidasoko. Beran errepresentazio bana eman ziran. Beste ondoko egunetan Lekunberrin, Leitzan eta, ari izanen omen dira.

Gogo onez ikusten dut gure Nafarrora euskal teatroaren taldeak ekartzea euskal kultura bideak gero eta zabalagoak izan ditezen.

Dakidanez Lesaka eta Beran teatro-aretoak mukurraino betetu ziran jendea atseginez dena entzun eta ikusi ari izan zelarik.

ikusle